

# DURRUMA / SAN ROMÁN DE SAN MILLÁN

— ARABA / ÁLAVA —

Durruma Arabako Lautadaren erdiko sektorea Nafarroako Burundaren mendebaldeko lurrekin komunikatzen duen korridorearen lepoan dago, Entzia mendilerroaren iparraldeko mendietan, 1.197 m-ko Baio tontorrak markatzen duen bertikalean. Donemiliaga udalerriari eta Aguraingo kuadrillari dagokio, eta Vitoria-Gasteizetik 30 km ingurura dago.

*Alba* erromatar etxe garrantzitsua, Astorga eta Bordele lotzen zituen galtzadaren Arabako tartean kokatua, baliteke gaur egungo Albeiz eta Durruma herrien inguruan egotea. Leku horretan lekukotza erromatar ugari agertu direnez, erromatar aldean bide honetatik joan-etorri ugari egin zirela dakigu.

Bestalde, Durruma Reja de San Millán deritzon dokumentuan ageri da 1025. urtearen inguruau, *Sancti Romani* izenez, VII *Alfozes* taldearen barruan. Eginotik Egilatzerako doan galtzadaren ertzetako herrikkak abeltzaintzan aritzen ziren batez ere. Hori dela eta, Durrumak urtean *andosco* bat –gaztelania zaharrean, urtebete edo bi urtetik gorako aharia– ematen zuen modu mankomunatuan, Egilatz, Urabain, Albeiz eta Ametzaga herrixkekin batera.

1062. urtean, Durruman, San Erromani es-kainitako parrokiaz gain, Santa Garaziri eskainitako monasterio txiki bat zegoen. Urte horretan, monasterio hori Nafarroako Iratxe monasterioari dohaintzan eman zion *Zorraquino* San Erromango abadeak. Azken horrek García Garceiz Gaunakoari erosi zion bostehun soldatatan baloratutako zalditzen truke. Dohaintza hori Arabako bost zaldunek baiezttatu zuten –*ex militibus Alavensis*, dokumentuaren arabera–, Gauna, Okariz eta Eginokoak, eta leku horretako jaun batek, Durrumako Fortún Sánchezek.

Durruma 1156an ere dokumentatzen da, elizako hamarrenen laurden bat Kalagorriko kabildoari eman zion-eta Cascanteiro Rodrigo gotzainak. Adskripzio hori 1179an eta 1200an baiezttatu zen. Alfonso XI.a erregeak 1332ko apirilaren 2an emandako mesede baten bidez, Durruma, eta beste hamalau herrixka eta bi herri hustu, Agurain hiribilduaren mende geratu ziren. Gil Lizentziatuak 1556an egindako bisita pastoralean, elizan bi onuradun zeudela ageri da. Erdi Aroko eragin moduan,

Se encuentra San Román de San Millán en el cuello del pasillo que comunica el sector central de la Llanada alavesa con las tierras occidentales de la Burunda Navarra, en las estribaciones septentrionales de la Sierra de Entzia, en la vertical que marca el pico Baio, de 1.197 m. Pertenece al municipio de San Millán / Donemiliaga y a la cuadrilla de Salvatierra / Agurain, y dista aproximadamente 30 km de Vitoria-Gasteiz.

La importante mansión romana de *Alba*, situada en el tramo alavés de la calzada que unía Astorga con Burdeos, pudo encontrarse en las inmediaciones de las actuales localidades de Albéniz y San Román. Así, las frecuentes apariciones de testimonios romanos en la zona corroboran el marcado tránsito que gozó esta vía en el período romano.

Por otro lado, San Román figura en el documento de la Reja de San Millán, hacia 1025, como *Sancti Romani*, dentro del grupo VII *Alfozes*. Las aldeas situadas en los flancos de la calzada que desde Eguino llega a Egilaz eran fundamentalmente ganaderas, es por ello que San Román tributaba anualmente un *andosco* –en castellano antiguo, un carnero de más de uno o dos años– y lo hacía de modo mancomunado con las aldeas de Egilaz, Urabain, Albéniz y Ametzaga.

En el año 1062 había en San Román, además de la parroquia cuya advocación dio nombre al pueblo, un pequeño monasterio dedicado a Santa Engracia. Este monasterio fue donado, en el citado año, al monasterio de Irache en Navarra por *Zorraquino*, abad de San Román, quien a su vez lo había comprado a García Garceiz de Gauna por un caballo valorado en quinientos sueldos. Esta donación era confirmada por cinco caballeros alaveses –*ex militibus Alavensis* consta en el documento– procedentes de Gauna, Okariz, Egino, y por un señor del lugar, Fortún Sánchez de San Román.

Se documenta también San Román en 1156, en la aportación de la cuarta parte de los décimos de su iglesia al cabildo calagurritano por el obispo Rodrigo de Cascante, adscripción confirmada en 1179 y en 1200. Por merced dada por el rey Alfonso XI el 2 de abril de 1332, San Román, junto con otras catorce aldeas y dos despoblados,

XVIII. mendean eta XIX. mendearen hasieran, Oñatiako kondeak Durrumako hamarrenen zati bat jasotzen zuen.

pasa a depender jurisdiccionalmente de la villa de Salvatierra. En la visita pastoral realizada por el licenciado Gil en 1556, consta que servían a su iglesia dos beneficiados. Como una reminiscencia medieval, a finales del siglo XVIII y comienzos del XIX el conde de Oñate cobraba aún parte de los diezmos de San Román.

## Durrumako eliza / Iglesia de San Román

**P**ARROQUIA XVI. mendekoa da. Kalitate oneko harlan-duzkoa da, eta neurri nabarmenak ditu. Eliza eraitzeko erromatar harri ugari erabili zituzten, eta hormetan inskripzioak irakur daitezke gaur egun ere. Izan ere, esan dugunez, tenplu hori erromatar aztarnategietatik hurbil dago. Erromatar hilarrien multzo zoragarria da, gehienak hileta-izaerakoak.

Tenpluaren portada ere aipagarria da, XIII. mendekoa. XVI. mendeko elizpeak babesten du. Elizpearen teilituari, ageriko habeekin, kapitel toskanarra duen harrizko zutabeak eusten dio. Portadan erdi puntuko arkua dago, bost arkiboltarekin, eta kuadrifolioz apaindutako arkugainera. Eragin zistertarra nabarmena da, apaindura simple eta dotoreekin, osagai figuratiborik gabe. Arkiboltek erritmo ahur-ganbila dute. Lehenengoa, hirugarrena eta bosgarrena baketoi simpleak edo moldura ganbilak dira koska hondorartuen artean, eta bigarrena eta laugarrena ahurrak dira, eta irauli egiten dira xake formako apainduren artean. Arkuaren zurkaitzak adarren eta hostoen kapitel txikiak dituzten baketoi hirukoitzak dira. Harroinak erliebe urriko hostoz daude apainduta, eta muturrak gorantz dituzte.

Kanpandorrearen azpian, tenpluaren hego-mendebaldeko angeluan, elizpetik sarbide zuzena duela, bataiarria dago gaur egun. XIII. mendekoa da, eta Araban kontserbatutako Erdi Aroko adibiderik ederrenetakoa dugu. Taza apaindura geometrikoz dago estalita osorik, gustu erro-maniakoaren arabera gainjarritako zerrenden bidez: goiko zerrendan, dentikulu triangeluarren ilara horizontalen eta zerrenda bertikal estuen artean, zurtoin kurbatuak irudikatzen dira, eta, elkarri lotuta, arku gurutzatuak eratzen dituzte. Bigarren zerrendan sei folioloko errosetak ageri dira, zirkuluetan inskribatuta. Hirugarren eta laugarren zerrenda soka itxurako motiboekin eta dentikulu triangularrekin bereizita daude, eta arku gurutzatuekin daude apainduta. Oinak nukleo zirkularra du. Aurrealdean zutabe erdiak ditu, eta, muturretan, baketoiak. Aurrealdeko zein ezkerreko zutabeak ezkatadunak dira. Harroin karratua arku gurutzatzuz dago apainduta. Apaindura motibo horien

**L**A IGLESIA PARROQUIAL es una edificación del siglo XVI construida en buena sillería y de proporciones destacadas. En su erección se emplearon, con profusión, piedras romanas, algunas con inscripciones aún visibles en sus muros ya que, como se ha indicado, este templo se sitúa próximo a importantes yacimientos de época romana. Se trata de un espléndido conjunto de lápidas romanas, en su gran mayoría de carácter funerario.

Destaca también la portada del templo, cronológicamente adscrita al siglo XIII, y protegida por un pórtico del XVI cuya techumbre, de viguería descubierta, es sustentada por una columna de piedra con capitel toscano. Se resuelve esta portada a base de un arco de medio punto con cinco arquivoltas y trasdós ornamentado con cuadrifolios. En ella se hace palpable el influjo del estilo cisterciense, notable por su austera sencillez y elegancia decorativa desprovista de cualquier elemento figurativo. Las arquivoltas siguen un ritmo cóncavo-convexo. La primera, tercera y quinta son simples baquetones o molduras convexas entre muescas rehundidas, mientras que la segunda y la cuarta, cóncavas, voltean entre decoración de ajedrezado. Constituyen los apeos del arco triples baquetones con pequeños capiteles de ramas y hojas incisas. Las basas se decoran con hojas de escaso relieve y puntas hacia arriba.

Bajo el campanario, construido en el ángulo suroeste del templo, y con acceso desde el pórtico, se encuentra actualmente la pila bautismal. Fechada en el siglo XIII, constituye uno de los más bellos ejemplares medievales conservados en Álava. La taza se cubre totalmente de decoración geométrica, mediante franjas superpuestas al gusto románico: en la banda superior, entre hiladas horizontales de dentículos triangulares y estrechas franjas verticales, se representan tallos curvados que, unidos entre sí, forman arquerías entrecruzadas. En la segunda banda aparecen rosetas de seis foliolos inscritas en círculos. La tercera y cuarta franjas se separan por motivos de soguedo y dentículos triangulares, y se ornamentan con arquerías entrelazadas. El pie, de núcleo circular, está formado



Portada

Portada



Bataiarria

Pila bautismal

guztien jatorria herri-artea da, eta ekialdeko ukitu nabarmenak dituzte.

Testua eta argazkiak: MPGH

por medias columnas adosadas al frente y baquetones a los extremos, siendo escamosas tanto las columnas del frontis como las del lado izquierdo. La basa, cuadrada, se ornamenta también con arquerías entrecruzadas. Todos estos motivos ornamentales se enraízan en el arte popular y muestran fuertes acentos orientales.

Texto y fotos: MPGH

#### Bibliografía / Bibliografía

BILBAO LÓPEZ, G., 1994, pp. 40-41, 130; LÓPEZ DE GUEREÑU, G., 1962, pp. 455-456; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1988a, pp. 482-486; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, p. 105, fig. 36-37; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1988, pp. 32, 63; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J. y MARTÍNEZ DE SALINAS DE OCIO, F., 1990, pp. 51, 58; MARTÍNEZ-TORRES, L. M., 2004, p. 54, 76, fig. 30; PORTILLA VITORIA, M. J. *et alii*, 1982, pp. 685, 689, fig. 603-604; PORTILLA VITORIA, M. J., 1983, p. 58; PORTILLA VITORIA, M. J., 1991, p. 63.